

## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Leioako Udalak bere gaitzespen irmo eta erabatekoa adierazten du alderdi politikoen, ordezkari publikoen, herritarren eta udalerriko espazioen aurka egindako pintaden, irainen, mehatxuen edo seinalatze-ekintzen aurrean.

Bizikidetza demokratikoak aniztasun politiko, ideologiko eta sozialarekiko errespetua eskatzen du. Desadostasun batek ere ezin du justifikatu pertsonak edo kolektiboak beldurtzea, haien irudia kaltetzea edo herritar guztiena den espazio publikoa hondatzea helburu duten jarduerarik.

Eduki politiko iraingarri edo mehatxagarria duten pintadak ez dira parte-hartze demokratikorako bide zilegi bat. Zatiketa eragiten dute, bizikidetza kaltetzen dute eta udal honek ordezkatzeko dituen balio demokratikoekin bateraezina den intolerantzia-mezua zabaltzen dute.

Horregatik, Udalak:

1. Gaitzesten du udalerriko alderdi politikoen, kargu publikoen, gizarte-eragileen edo herritarren aurkako jazarpen, larderia edo bandalismo politikoko edozein ekintza.
2. Bere konpromisoa berresten du askatasun ideologikoarekin, parte-hartze demokratikoarekin eta sentsibilitate politiko desberdinen arteko errespetuarekin.
3. Mota honetako ekintzak jasan dituzten pertsona eta erakundeekiko elkartasuna adierazten du.
4. Herritarrei dei egiten die errespetuan, hitzean eta bide demokratikoetan oinarritutako bizikidetza defendatzeko.
5. Konpromisoa hartzen du espazio publikoak gorroto-mezuetatik, mehatxuetatik eta deskalifikazio pertsonaletatik libre mantentzeko lanean jarraitzeko.

Leioak bizikidetza, errespetu eta aniztasuneko udalerria izaten jarraitu behar du, non desberdintasunak elkarrizketa demokratikoaren bidez adieraziko diren, eta inoiz ez hertsapenaren, seinalatzearen edo bandalismo politikoen bidez.

Leioan, 2026ko ekain aren 4 an.

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El Ayuntamiento de Leioa manifiesta su rechazo firme y rotundo ante las pintadas, insultos, amenazas o actos de señalamiento dirigidos contra partidos políticos, representantes públicos, personas particulares y espacios del municipio.

La convivencia democrática exige el respeto a la pluralidad política, ideológica y social. Ninguna discrepancia puede justificar actuaciones que busquen intimidar, degradar la imagen de personas o colectivos, o deteriorar el espacio público que pertenece al conjunto de la ciudadanía.

Las pintadas de contenido político ofensivo o amenazante no constituyen una forma legítima de participación democrática. Generan división, deterioran la convivencia y trasladan un mensaje de intolerancia incompatible con los valores democráticos que este Ayuntamiento representa.

Por ello, el Ayuntamiento:

1. Condena cualquier acción de acoso, intimidación o vandalismo político contra partidos políticos, cargos públicos, colectivos sociales o vecinos y vecinas del municipio.
2. Reafirma su compromiso con la libertad ideológica, la participación democrática y el respeto entre diferentes sensibilidades políticas.
3. Expresa su solidaridad con las personas o entidades afectadas por este tipo de actuaciones.
4. Hace un llamamiento a la ciudadanía para defender una convivencia basada en el respeto, la palabra y los cauces democráticos.
5. Se compromete a continuar trabajando para mantener los espacios públicos libres de mensajes de odio, amenazas o descalificaciones personales.

Leioa debe seguir siendo un municipio de convivencia, respeto y pluralidad, donde las diferencias se expresen mediante el diálogo democrático y nunca mediante la coacción, el señalamiento o el vandalismo político.

En Leioa, a \_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2026.



PODEMOS LEIOA



PP VASCO

GRADOS  
GARCIA,  
PILAR  
(AUTENTICA  
CIÓN)

Firmado  
digitalmente por  
GRADOS GARCIA,  
PILAR  
(AUTENTICACIÓN)  
Fecha: 2025.06.02  
13:26:43 +02'00'



EAJ-PNV